

Ehorzketa berdeak

Legeak eta usadioak traba egiten diote heriotza ekologikoari

Mendebaldeko kulturak heriotza kudeatzeko ezarrita daukan sistema ez da jasagarria. Ezaguna da heriotzak zer nolako zauria egin diezaiokeen familiaren ekonomiari; ez da hainbeste aipatzen ingurumenari ere ordainarazten diogula heriotza hori. Sortu dira horren aurrean aukera ekologikoak, baina Euskal Herrian legedia eta tradizioa oztopo dira azken bidaia bide horretatik egin nahi dutenentzat.

UNAI BREA

NORBAIT EHORZTEAN, hilotzarekin batera hainbat elementu kutsatzaile txertatzen dira naturan. Ecosofia.org webgunean irakur dezakegu AEBetan, urtero, 3.130 milioi litro jariakin toxiko, 90.272 tona burdina, 2.700 tona brontze eta kobre eta 30 milioi tona zur lurperatzen direla, besteak beste. Gero eta jende gehiagok errausketa hautatzen du ehorzketaren ordez, eta pentsa liteke aukera garbiagoa

dela: hilotz baten hautsak guztiz inerteak dira, eta ez da hondakinik uzten lurzoruan. Ez da erraza Euskal Herrian egiten diren errausketen kopuru zehatzak jakitea, ez baitago estatistika ofizialik. Espainiako Ehorztetxeen Elkartearen arabera, 2006an hildakoen laurdena errausten zen Espainiako Estatuan, eta urterik urte igo egiten da portzentajea. Hoberik ezean, balio beza Gipuzkoako ehorztetxe batean jaso dugun datu honek: gaur egun iristen zaizkien hilotzen %40 errausten dituzte, orain dela hamar urte %10a.



AEBetako hilerri berdeetan hartuak dira irudi hauek. Gorpua naturan integratuta dago, eta ez isolatuta, kanposantu konbentzionaletan bezala. Ikusi ditzakezuen hilarriak ere bertakoak dira, ezin zaio-eta elementu arrotzik gehitu inguruari.

Edozein errauste-prozesuk kutsadura sortzen du, eta gorpua, ehorzketa baino jasangarriagoa izanda ere –baldin bada–, ez da salbuespena, are gutxiago kontuan izanda legediak hilkutxa eta guzti erraustera behartzen duela, gurean behinik behin. Era horretan, konbustioak nahitaez sortzen duen CO2-ari kutxek dituzten hainbat produktu kutsatzaile gehitu behar zaizkio (karbono monoxidoa, merkurioa, beruna...). Suediako Ingurumen Zuzendaritzaren arabera, herrialde horretan atmosferara botatzen den merkurio guztiaren herena hilotzak errausteko labeetatik dator.

AEB eta Suedia, lekutara joan behar izan dugu datu bila, Euskal Herrian ia ez baitago gai honi buruzko eztabaidarik. Aldiz, sarean pixka bat nabigatzea aski da konturatzeko zenbait herrialdetan aspalditik daudela kezkatuta hilotzen kudeaketak ingurumenari eragiten dion inpaktuaz. Bestelako bideak gauzatu dira, mainstreametik aparte baina arrakastaz.

Ehorzketa ekologikoetan, hilotzak zuzenean sartzen dira lurpean, hilkutxa biodegradagarri batean edo oihal batek inguratuta, eta aurretik tratamendu kimikorik jasan gabe

Gugandik hurbilen dagoen adibidea Britainia Handia da. Haiek izan ziren aitzindariak, gainera: 90eko hamarkadaren erdian hasi ziren ehorzketa ekologikoak egiten, eta 2007rako 214 gune zituzten funtzio horretarako atonduta. Gerora, AEBek eman zieten berebiziko bultzada ehorzketa ekologikoari. Eco-sofia.org-ek diosku Osaba Samen lurraldean, hala nola Australian eta Zeelanda Berrian, zabalpen handia erdietsi dutela hilerri “berdeek”. Baina zer da ehorzketa ekologikoa?

Heriotza beste era batera bizi

Green Burial Council enpresak sustatzen ditu ehorzketa berdeak AEBetan. Izan ere, horixe esan nahi dute *green burial* hitzek: ehorzketa berdea. Ekimenaren xedea ez da inpaktu ekologikoa saihestea bakarrik, heriotza ulertzeko filosofia oso bat dago hor. “Argi dago naturak gure gorpuei ematen dien patua Lurrarekin batzea dela”, irakur daiteke euren webguru.

HILETAREN BALIOA

Txina Inperiala



40

URTE

eman zituzten Qin Shi Huang enperadorearen hilobia eraikitzen

700.000

LANGILE

aritu ziren hori eraikitzen

Funeraria Vascongadan pentsatzen dugu pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela, horregatik **Hileta Zerbitzu Packak** eskaintzen ditugu aukera ekonomiko guztietarako.

Berreskurazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena errazagoa izan dadin.



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

www.funerariavascongada.com
24 orduko zerbitzua: 902 40 29 00

nean, “noizbait bizi izan diren organismo guztiak hil egin dira eta zorura itzuli dira, birziklatzeko”. Ecosofia.org-en zabalago esplikatzen dute hau: “Hilerri berdeak alternatiba etiko, ekologiko eta jasangarri gisa jaio dira, ehorzke-industriaren ohiko jardunari aurre egiteko. Ehorzketa arruntetan, hilotza lurretik aldentzen/babesten da, luzaz irauten duen hilkutxan sartuz, edota baltsamatu egiten da, gehiago kontserbatu dadin. Hilerriak hirietatik urrun daude, eta gorpu asko sartu ahal izateko diseinatutako leku hotzak dira”. Hilerri berdeak, aldiz, gune naturalak dira, eta haien sustatzaileek halaxe mantendu nahi dituzte, hilotza biziaren berriztatze prozesuaren parte bihurtuz, hain justu.

Green Burial Council dio alternatibaren alternatiba izan nahi dutela. “Familia askok erraustea aukeratzen dute, ohiko ehorzketak baino kalte gutxiago egiten diolakoan ingurumenari. Ehorzketa berdeak bestelako bide bat eskaini nahi du”. Hilotza zuzenean sartzan da lur azpian, eta ez hormigoizko lau hormaren artean. Ez da alde aurretik baltsamatzen, eta beraz ez darama inolako produktu kimiko kutsatzaileerik –batez ere formaldehidoa erabiltzen da baltsamenduetarako–; gorpua hilkutxa biodegradagarri batean sartuta egon daiteke, edo besterik gabe oihal batek inguratuta. Hilobia non dagoen adierazteko ez da erabiltzen elementu arrotzik. Kasu batzuetan, inguruko harri bat jartzen da hildakoaren izenarekin, beste batzuetan zuhaitz bat landatzen dute. Green Burial Councilen azpimarratzen duenez –azken batean enpresa dira beraiek ere–, ekologikoa ez ezik askoz merkeagoa da aukera hau.

Euskal Herrian ehorzketa ekologikoen arrasto handirik ez dugu momentuz. Legeak kasu batzuetan, eta gurean nagusi den pentsamoldeak beti, ez dute bidea errazten. Hego Euskal Herrian indarrean dauden araudiek diote hilotz guztien zoria baimendutako lekuan ehorztea edo erraustea izan behar

Ohiko hilkutxan prezioa oso aldakorra da. Europar Batasunean, 300 eta 2.000 euro bitartekoa izan daiteke. Zenbat eta garestiago, orduan eta kutsatzaileagoa izan ohi da, material sintetiko gehiago daukalako.



DANI BLANCO

dela; beste horrenbeste gertatzen da Iparraldean, baina han, gainera, ehorzten diren gorpu guztiak baltsamatu egin behar dira. Baimendutako lekua, hau da, hilerria, honela definitzen du EAeko araudiak: “Hilotzak, hilotz-hondarrak eta gorpuzkiak, edo horien hautsak, osasun publikoarentzat arriskurik gabe ehorzteko atontzen den eremu mugatua”. Green Burial Councilen baso idilikoak hortik kanpo geratzen direla esan gabe doa.

Hilotzak ez dira kutsadura

Osasun publikoaren babesarekiko grinak gidatzen ditu erakunde publikoen urratsak, eta horrek eragiten du, hilobiak hormigoizko-



Zarautz
Hileta Zerbitzuak

Araba kalea, 35 · Zarautz (Gipuzkoa)
☎ 943 894 937 / Faxe: 943 894 941 · harrespil@harrespil.net



Harrespil
Hilerri eta Hileta Zerbitzuak



Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Amilaga, 39 · Bergara (Gipuzkoa)
☎ 943 761 299 / Faxe: 943 761 299

Hilerrien gestioa · Hileta zerbitzu orokorrak · Zerbitzu iraunkorrak · Koroak · Eskelak



Heriotzarekiko obsesioak bizirik geratu direnei egin diezaieke kalte hondamendi handietan

Solasaldiaren amaieran, Francisco Etxeberriak liburu bat erakutsi digu: *Manejo de cadáveres en situaciones de desastre* (Hilotzak nola erabili hondamendi egoeretan), Osasunerako Panamerikar Erakundeak argitaratua. “Bogotan egindako bilera batean eman ziguten hau; pasarte batean dio ez dela egia hilotz asko pila-tzeak berez arriskua dakarrenik. Hondamendia gertatzen denean hildakoen gorpuk lehenbailehen erretzeko gobernu guztiak duten obsesio hori akats handia da. Ni bat nator. Horren oinarrian dagoena beldur atabikoa da, ez besterik”. Hori esanda, liburua laga digu, guk lasai irakurtzeko. Lasai edo.

“Hondamendi batek eragindako gorpuen presentzia soilak ez du eragiten gaixotasun kutsakorrek zabal-tzea”, hasten da Etxeberriak aipatutako kapitulua. Egileek azaltzen dutenez, gizakien zein animalien hilotzak osasun publikorako arriskutsuak direla pentsatzeak hainbat kalte eragin izan ditu hondamendi handi bat jasan duten lekuetan. Lehentasunak finkatzean irizpide okerrak erabili izan dira, salatzen dutenez. Esaterako, 1998an Mitch urakanak Ertamerika suntsitu zuenean, eskura zegoen erregai apurra hildakoak zientoka kiskaltzeko erabili zen. Sarritan, hildakoen kudeaketan jarri



NOTICIAS DE BOMBEROS EN GUATEMALA

izan da bizirik geratu direnen egoera hobetzeko balio behar zuten baliabideen zati bat, eta era horretan hondamendiaren ondorioak aregotu dira.

Honek ez du esan nahi hilotzei lotutako inolako arriskurik ez dagoenik. Egon daiteke, baina baldintza jakinetan, ez beti. Haatik, mitoak ebidentzia zientifikoa ezal-tzen du, eta oztopo handia da hilotz kopuru handia erabili behar duten agintari eta osasungintzako profesionalen-tzat. Gehienoi kostatzen zaigu sinestea milaka hildako dagoen tokian ez dela nahitaez epidemia bat zabalduko.

ak izateaz gain, gorpua hilkutxan dagoela ehortzi edo erraustu beharra. “Hilotz batek sor dezakeen arriskuak heriotzaren zergatiarekin zerikusi handia dauka”, diosku Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuko Javier Aldazek, “baina istripuan hildakoaren gorpua agerian edukitzea, esaterako, ez zait iruditzen oso atsegina denik. Osasungintzaren ikuspuntutik arrazoizkoa dirudi hilotza edukiontzi hermetikoan gordetzeak”. Hori esan aurretik, hala ere, Aldazek onartu du zuzenean lurrarekin kontaktuan dagoen hilotzak ez duela zertan lur hori kutsatu.

Francisco Etxeberria auzitegi medikuntzako irakasle ezagunarekin bildu gara bere bulegoan. “Hilotzek ez dute inolako arazorik sortzen kutsadura kimikoari dagokionez”, esan digu. “Gorpua usteltzearen emaitza, berez, konpostaren oso antzeko hondakina da; alde horretatik, ez zaio naturari gehitzen aurretik ez zeukan ezer. Arazoa bakterioen ugaltzea izan daiteke, hori da kontrolatu behar dena”.

Erromatarren garaitik, hildakoak gutxienez metro bateko sakoneran lurperatzea izan da legea, dio Etxeberriak. Horrela eragozten da animalia batek, usainak erakarrita, hilotza kanpora atera ahal izatea. Arau hori betez gero, Etxeberriaren ustez hilotz batekin egin daitekeen gauzarik onena zuzenean lurrean sartzea da, inolako sofistiaziorik gabe. “Hori

egin izan da betidanik”. Irakasleak azpimarratzen du, baina, gaur egun Euskal Herrian ezinezkoa litzatekeela hori, legeak hala baimenduko balu ere. Ez dago leku nahikorik bakoitzak nahi duen lur puskan ehorztekotik hiltzen zaizkion senideak. Horregatik nahitaez kotzat jotzen du araudia.

Plastiko, nylon, berniz, margo...

Nolanahi, gaurko sisteman akats ugari ikusten ditu Etxeberriak. Larriena plastikozko estalkien erabilera da. “Ospitale batean hitzen den oro horrelako batean sartzen da arrazoi higienikoengatik eta erosotasunagatik. Kontua da askotan hilotzak poltsa horren barruan jarratzen duela ehorztekotik, legeak kendu behar dela dioten arren inork ez duelako kentzen”. Urte batzuk igarotakoan, hilotz horren hondarrak lekuz aldatu behar direnean, arazoa sortzen da: “Gorpua ez da behar bezala usteldu, eta hori bada osasungintzako arazo larria, mikrobioentzat ugaltze foku izugarria delako. Gaur egun etengabe gertatzen da hori”.

Hilobitak ateratzen diren hondar horiek erre egiten dira ia beti, eta haiekin batera hilkutxetako pintura, berniz eta nylonak, plastikozko estalkiak eta, Iparraldearen kasuan, baltsamatzeko erabilitako substantziak (Hego Euskal Herrian oso gutxi baltsamatzen da).

Horrek kutsadura sortzen du, zer esanik ez. Hala ere, bai osasun publikoko arduradunek bai ehorztetxeetakoek diote gero eta produktu “garbiagoak” erabiltzen direla hilkutxetan zein baltsamenduetan. Bigarrenen kasuan, produktu bera da, baina kontzentrazio txikiagoetan.

Hilkutxa biodegradagarria ez da dotorea

Inguru naturalean ehorzterik ez dagoenez eta hilkutxaz ez garenez libratuko momentuz, hilkutxa hori ondo aukeratzea da Euskal Herrian heriotza ekologikoa eduki nahi duenari uzten zaion zirrikitu bakarra. Aipatu ditugu honezkero AEBetan erabiltzen dituzten hilkutxa biodegradagarriak; bada, hemen ere badira, eta legeak baimentzen ditu, hermetikoak izateko baldintza besterik ez dute bete behar. Biodegradagarriak ez, baina nolabaiteko ukitu “berdea” daukatenak ere badaude: zuhaitz-mozketa kontrolatuetatik ateratako zuraz egindakoak, metalezko atalik gabeak... eta baita zurezkoak ez direnak ere. Kartoiz, banbuz edo artoz egindakoak eskuragarri daude gaur egun. Eskuragarri, bai, baina ez oso.

Legeak ez du eragozpenik ipintzen, baina bai tradizioak, batetik, eta merkatuaren lege zorrotzek, bestetik. Hildakoari behar bezalako omenaldia ez ematea leporatuko digutela-

Ehorzketarekin alderatuz ekologikoa delakoan aukeratzeko omen dute askok errausketa, baina hark ere kutsadura eragiten du. Besteak beste, CO2 eta metal astunak igortzen ditu atmosferara.



DANI BLANCO

koan nonbait, hilkutxa “onena” aukeratzeko joera izaten dugu, edo behintzat ordaindu dezakegun onena. Hau da, garestiena eta, normalean, ingurumenarentzat kaltegarriena, material sintetiko gehien dituen delako. Inork ez digu debeketzen, demagun, lehengusu arotzak egindako pinuzko kaxa sinple batean joatea hilobira, baina nork egingo hautu hori? Ehorztetxeek behintzat ez zaituzte animatuko, euren negozioa aurrera atera behar dute eta. Adibide bat: Espainian bizi den Mauricio Kalinov argentinarrak kartoizko hilkutxa biodegradagarriak diseinatu ditu; zuhaitz bakar batekin 100 egin daitezke eta 50 euro balio dute. Huts bakarra dute: ehorztetxeek ez dituzte nahi. ■



Moyua

hileta zerbitzuak

Zure momentu zailtarako



☎ 943 780 671
Faxa: 943 783 447

Otadui Zuhaiztia, 25
20560 Oñati (Gipuzkoa)

www.funerariamoyua.com